


2020ko
URTARRILEKO
MERKEALDIKO
HIZKUNTZAREN
NEURKETA



1. Lagina

Neurketa Durangoko sei merkataritza gune ezberdinetan egin da eta guztira 100 izan dira behatu diren erakusleihoak.


Hona hemen lagina zona eta kopuruka adierazita:



Ikusten denez, gune bakoitzean behatu diren erakusleihen kopurua ez da berdina izan, beraz, hori kontutan hartu behar da datuak interpretatzerakoan. Lan hori errazte aldera, emaitzak ehunekotan adierazi dira txostenean.


2. Neurketaren emaitza orokorrak

Ehun erakusleihen horietan kartelak zein hizkuntzatan dauden behatu ostean, ondorengoak izan da emaitza: euskara hutsez 12 erakusleihen, elebitan 36 erakusleihen eta gaztelera hutsez 52 erakusleihen.



3. Neurketaren emaitzak zonaldez zonalde


Jasotako datuak zonaldeka aztertuz gero, proportzioan, Aldez Zaharrean dago euskarazko kartelen kopuru handiena. Askatasun Etorbidean, Fray Juan de Zumarraga kalean eta Landako inguruan ez dugu euskara hutsezko erakusleiko bakar bat ere ikusi.




4. Emaitzen bilakaera 2019-2020

Aurten jasotako datu orokorrak iazkoekin konparatuz gero, egoera ez da askorik aldatu: euskara hutsez idatzita dauden kartelen kopuruak gora egin du, baina era berean, gaztelera hutsez idatzitakoena ere hazi egin da.

Zonaldekako bilakaerari dagokionez, Alde zaharra izan da euskarazko kartel kopuruak gora egin duen guneko bakarra; gainontzekoetan beheranzko joera ikusi da.





Azpimarratzekoak:

Aurreko urtean egindako neurketaren emaitzak aurtengoekin konparatzerakoan, bilakaera orokorretik haratago, erakusleihu bakoitzean aldaketarik egon den edo ez ere aztertu dugu.

Honako hau izan da emaitza:

- Positiboan:
 - laz kartelak elebitan izan zituzten denda bik eta gaztelera hutsez izan zituzten beste bik, aurten, euskara hutsez iragarri dute merkealdia.
 - laz gaztelera hutsezko kartelak jarri zituzten sei dendak, aurten, mezua elebitan eman dute
- Negatiboan:
 - laz kartela euskara hutsean jarri zuten denda bik, aurten, gaztelera hutsezko kartelak jarri dituzte
 - laz kartelak elebitan jarri zituzten hamar dendak, aurten, gaztelera hutsezko kartelak ipini dituzte.